

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko Maiatzak 8, 149. zenbakia

ARKOK argitaratua Udalaren laguntzaz



EDUARDO G. MATILLA
Publizitatearen
mainak azaleratzen



Zer irakurtzen dugu Arrasatearrok?

Kioskotik bueltan

Joseba



ERAMAZU.

1.323.300 PTatik hasita

Clio **S** 92 c.v

Orain, 5 atekoa ere bai.

MECA, S.A.
ARRASATE

H



onelako argazkiak sarri sarri ikusten ditugu, ezta? Baina udaberria eta denbora ona sentitzen dugunean gura barik barre keinua etortzen zaigu espainetara, poza eta lasaitasuna azaltzeko nahiean. Beltzaran zein ilehori, begi urdin zein begi beltz, gazte zein heldu, egizu barre!

Eta guretzat barre keinua egitea erraza bada, umeentzat askoz gehiago noski, gure artifizialtasuna ezagutzen ez dutelako eta

guk ez dugun naturalitate eta espontaneitatea dutelako.

Zenbat eta nagusiagoak izan, zailtasun gehiago izaten du argazki kamara aurrean jartzeko; postura,

keinua, perfil eta aurpegi onenarekin irtetzeko ardura izaten dugu. Ume eta gaztetxoek aldiz, bapatean, edozein modutan jarri eta, plast! Begira ze argazki polita!

Jose



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...

**Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE**

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

ARKO. Arrasate Komunikabideak-AED
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon.

Maketazioa:

Goio Arana

Publizitatea:

Kepa Oliden

Tfnoa: 77 08 15

Kontabilitatea:

Agurtzane Gaintzarain

Erredakzio-kontseilua:

Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero eta Iñaki Mendigüren

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertsoeskola.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. Ozaeta

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 6.100 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo Saillaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

149

“Paradoxes sociologiques”, joan den mendean Max Nordau filosofoak idatzitako liburua da, eta bertan, 149gn orrialdean honela irakurtzen da:

“Nork bere Jainkoari bere hizkuntzaz otoitz egiteko aukera ezinbesteko eskubidea da. Hitzaren iraupen biziak gizakiarenaz bat egiten du. Horregatik, komunitatea eta estatuaren erakundeek garrantzi erabatekoa eman behar diote eskubide horri. Nork aukeratzen ez duen beste hizkuntzaz aritu beharra izatea, gizabanakoak bortizkeriatzat hartuko du.

Honetaz ongi ezagutzen dute, euren mintzaira gutxiengo batek bakarrik erabiltzen duen nazionalitateetako biztanleek. Estatuaren hizkuntzak nazionalitatekoa zapaldu duenean, eledun minoritarioak bere garaiko kondenatu bezala ikusiko du bere burua. Igaro egin behar da egokiera horretatik, pertsonaren oinarritzko eskubideak nola diren erazuta frogatzeko eta estatu-hizkuntzako dominatzaileen aurrean nola makurterazten zaien ikusteko. Natur-legea zanpatua izaten da, inposatzaileenaren mesedetan, zigor judiziala ere horrela egokituz, inolako zalantzarik egon ez dadin.

Kateatu egin al daitezke esku eta

oinak, hizkuntzaren kateaketa lortzeko? Zilegi al da estatu guzti ahaldu-naren jokaera? Ez al da hori genozidioaren ezaugarriarik nabarmenena? Bere hizkuntzatzat onartzen ez duenaren bitartez adierazi behar izaten duenak bere giza garapena elbarritua senti dezake, mutilatua; zeinek ukatuko du bere nortasuna? Zergatik behartu behar zaie, hain zuzen ere, euren eskubidearekiko uko egitera? Zeinek onar lezake bere bizitzapenak, barne sentimendurik minenek osatuta, hizkuntz arrotzaren bidez egitea?

Pertsonaren izenburua duintasunez daraman inork ezingo luke etsi bere hizkuntzarekin egin daitekeen atentatuaren aurrean”.

Historiak garbi erakusten digunez, edozein herriren garapenean bere mintzairak erabateko garrantzia izan duelarik, gurearen gisako herri batean zeinu maiuskuluok hartzen ditu baieztapenak, izan ere herri bezala bizirik iraungo badugu... jaramon gehiegi eskaini beharko bait zaio, ia ia abandonatuta daukagun euskarari.

A! Eta eskuetan daukazun honekin, konturatu ez bazara oroitu nahi dizut, 149gn zenbakia kaleratzen du gure astekariak. Harriz harri.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Memesa

79 42 22




EE.BB.

Parlane

- Ikasi ingelesa “rancho” amerikar batean.
- Gazte eta helduentzako ikastaroak Carolina del Norte famili-giro sanoan.

Informazioa: Ferrerías, 11 etxabea.
Tfnoa: 77 06 83



IRLANDA

Parlane

- Ingelesezko ikastaroak eta kirola gazte eta helduentzat.
- Arrasatek bertatik lagunduta.
- Familia bikainak.

Informazioa: Ferrerías, 11 etxabea.
Tfnoa: 77 06 83



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84


**MUXIBAR
TABERNA**

**Ezin hoberik
inguruan topatu!**

Bizkaia Etorb.
Tfnoa: 79 09 75
ARRASATE

**ARAMAIO
okindegia**

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46



Kontzezifio, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

**Lasai, birigarruen kantu ederrak
luzaro entzungo ditugu Gatzagan**

J. O. E. ren artikulua irakurrita gero, gaur egun beharrezkoa den naturaren defentzaz aritu eta eman dion akritude gabeko zentzu baikor eta erromantikoagatik eskerrak eman ondoren, idazlan hortan, gaizki ulertu litezken gauza batzu zuzendu nahi genituzke.

Artikuluak, erdi inguruan azaltzen duen "miezketa" baten ardaztutzen du bere arrazoia.

Hori egia da, baina zer da mieztea? zergatik miezten da?

Gatzagako oihanetan, Deba ibaiaren jaioteruntz goazela dagoen Tantadui izeneko hariztegia, orain 100 urte baino lehenago landatutako haritzez beteta dago.

Normalean, zuhaitza, landatze-rakoan nahiko itxita edo "zerraua" landatzen da, elkarren babesean hobeto hasi (hezi) dadin.

Gure aurreko belaunaldien testigu ageri ditugu oraindik gure artean zorionez, eta euren testimonioaren bidez, ondo dakigu ondoren zaindu duten ohiana izan dela "Tantadui", eta ildo beretik jarraituz, oraingo honetan "miezketa" lanak tokatzen dira, aurreko urteetan hazteko beharrezkoa zena, aurrerantzean kaltegarria bait da zuhaitzentzako lekurik eza.

Beraz, menderaturik geratzen ari diren zuhaitzak, naturalki galtzen utzi beharrean egurretarako aprobeztatuz egingo dugu "miezketa" hori.

Eta, zein lanetan ibili garen akklaratu ondoren, beste zuzenketa garrantzitsu bat egin beharrean gaude, hauxe da: Gatzagako Udalak entresaka horregatik jaso duen diru kopurua ez da milioi (1.000.000) batera iristen. Gipuzkoako aldizkari ofizialean lehenengo subastarako jarri genuen gutxiengoa baino gutxiago eman ziguten, ez bait da

egurrentzako garai aproposa oraingoa.

Dena den, besteen adineko behar ekonomikoak eduki arren, zuhaitz eta oihanak kontserbatzearen alde dago Gatzagako Udalak. Baina ez dago zuhaitz tinko eta tenerik aurre selekzio bat egiten ez bada, ezta oihan garbirik ere, txareko ostro abarrak garbitzen ez badira. Beraz, Gatzagako Udalak dauzkan terrenoetatik - 900 Ha. - %85a haritz eta pagoz beteta dago, enparekoe-tan pinudi batzu dauden arren.

Horrela ba, eta oihanari dagokionez etzazuela beldurrik eduki, aintzinatik gure arbasoen belarriak alaitzen zuten sinfonia liluragarrien egileek, oraingoz ez dute emigratu beharrik, abesti zahar batek dioen bezala euren ostatua hemen daukate eta.

Eskerrik Ask.

MENDI ETA INGURUGIROKO ZINEGOTZIA,
LEINTZ GATZAGAKO UDALA.

Bedoñako bidea

Ez dakit nori dagokion, Udalaria pentsatzen dut, baina Arrasatek Bedoñara daraman bideak konponketa sakona behar du. Berez bidea aldapatsua eta estua da, baina zoruaren baldintzak ez dira bat ere onak, non nahi zuloak ikus eta zapaldu daitezke eta. Argi dago baldintza horiekin bide horretatik pasatzea ez dela segurua, ez kotxedunentzat eta ezta ere oinezkoentzat ere.

Udala auzorako bidea orain hilabete batzuk antzera zegoen, baina konpondu zuten, zergatik ez Bedoñakoa? Bide hori nola dagoen ikusita eta zenbat jende erabiltzen duen kontuan hartuta, zabaldu egin beharko litzatekeela uste dut eta zorua behar bezala jarri. Bestela ez da arraroa izango egunen baten Bedoñako bidean gertatutako istripuaz hitz egin behar izatea.

R. R.

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK


Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

Zaborra biltzeko puntu berriekin ados zaude?



Rosa Jose (Etxekoandrea)

Lehen edozein tokitan uzten ziren eta orain behintzat badaude toki konkretu batzuk.



Josema Cabeza (Langabetua)

Bilketa erraztuko da baina konturatu naiz aparkaleku gehiegi kendu dituztelako.




Jesus Mari Zamakola (Modelista)

Batzuk ondo daude baina beste batzuk oso gaizki, tokiak ondo aztertu barik jarri dituzte.




Idoia Agirre (tabernaria)

Uste dut lehen baino hobeto dagoela, garbiagoa iruditzen zait.



Felisa Azkarraga (Etxekoandrea)

Bai, orain askoz hobeto daude bai zaborra biltzeko, baita guretzat ere.



Jose Mari Sagasta (Ulgorreko langilea)

Biltzeko erraztasun handiak ematen ditu baina jendearentzat lehen egongo zen errazago.

ESTETIKA ZENTRUA
lurrundegia, opariak, jostailuak
Z a r r a o a
Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19

ARRASATE PRESS

77 05 65

• **Txitxinpe** •
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdatetgia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76


GIZON ETA EMAKUMEAREN MODA
Otalora 7/g
Tfnoa: 79 20 30
ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
--------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZTA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEAREN ZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



8

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "El silencio de los corderos" (5-7.30-10).
- Liburuaren aurkezpena: "Cartapacios de Lucerna", Leopoldo Paneroren eskutik, Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Irizar, Erguin. Gaeuz: Puy, Bergara.

9

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "El silencio de los corderos" (5-7.30-10)
- Umeentzako bideo - emanaldia: "Printzesa ezkongai" arratsaldeko 4.30etan Monterronen.
- Kontzertua, Arrasate Musikal-eko Orkestra Sinfonikoarekin, San Juan Bataiatzailearen parrokiaren arratsaldeko 8etan.

Kirol Agenda

Futbitoa

- Zaldibarko txapelketako azken partiduak larunbatean, eguerdiko hamabietan eta arratsaldeko bostetan finala.

Txirrindua

- San Isidro Saria, igandean goizeko 10.30etan Musakolan.

Krossa

- Ojala zelai krossa igandean, goizeko 11 etatik aurrera Urkulun.

- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santamaina. Gaeuz: Guallar, Bergara.

10

IGANDEA

- Zinea: Alai: "El silencio de los corderos" (5-7.30-10)
- Mendi bizikletaz txangoa, irteera goizeko 8.30etan kiroldegian.
- Goardiako farmazia: Egunez: Aurora Ruiz, Maala. Gaeuz: Guallar, Bergara.

11

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "El silencio de los corderos" (7-9.30)
- Mendiko astea: diapositiba emanaldia, "Patagonia: Torre Central del Paine", Jon Lazkano bergararren eskutik. Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Morales, San Andres. Gaeuz: Estella, Bergara.

12

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "El silencio de los corderos" (7-9.30)
- Mendiko astea: diapositiba emanaldia, "Austriatik Nizara skiz", Belen Eguzkiza eta Eugeni Gorrotxategiren eskutik, Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Azkoaga, Ferrerías. Gaeuz: Mozos, Bergara.

13

ASTEAZKENA

- Estetikari buruzko hitzaldia. Gaiak: 1) Eguzkiaren eragina azalean. 2) Gorputzaren zainketa. 3) Zer da estetika? Arantxa eta Garbiñe Albiuzaren eskutik.
- Mendiko astea: diapositiba emanaldia, "Mesa Turik. Euskal Venezolar Espeleologi Espedizioa 1991", Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Español, Iturriotz. Gaeuz: Camacho, Bergara.

14

OSTEGUNA


- Zinea: Alai: "El príncipe de las mareas" (7-9.30)
- Liburuaren aurkezpena, "Nosotras las putas", Cristina Garaizabalen eskutik, Udaltxean arratsaldeko 7etan.
- Mendiko astea: hitzaldi - mahaingurua, "Aktibitate berrien eragina mendian", Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Corcuera, Musakola. Gaeuz: Puy, Bergara.

Musika

• **Bandaren Kontzertua**
Igande honetan, maiatzaren 10ean, Eskoriatzako musikaeskolako bandaren kontzertua izango da Eskoriatzako plazan. Eguerdiko 12.30etan hasiko da

• **Musika zikloa**
Foru Aldundiko Kultura eta Turismo Sailak, musika ihardunaldiak antolatu ditu Oñatin. Igandean Santa Anako auditorioan, Ainhoa Arteta sopranoaren eskutik hasiko da zikloa. 17rako Cobres de Aquitania taldearen eta Jose Manuel Azkue-ren emanaldia iragartzen da. Eta 24 azken eguna izango da, Wien Barock austriarra eta Jose Vazquezen eskutik emanaldia entzuteko aukera.

• **Rock kontzertua**
Datorren 14ean, Eskola Politeknikoko jai eguna ospatzen dela eta, gauze Signaculum Virginitatis eta E.H. Sukarrak taldeen kontzertua izango da Iturripeko frontoian.



Hitzaldiak

• **Diabetia eta artrosia**
Maiatzaren 14an, ostegunenez, Eskoriatzako Kultur Etxeko erakusketa aretoan, "Diabetia eta artrosia"ri buruzko hitzaldia emango du Gabriel Eloorriaga sendagileak.

1992ko maiatzak 8



Mendi Astea

Diapositiba-emanaldiak eta hitzaldi-mahainguru bat

Besaide Mendizale Elkarteak antolatuta igandetik ostegunera bitartean Mendi Astea burutuko da. Igandean, ekintzei hasiera emanez, mendiko bizikletaz txangoa egiteko asmoa dago; irteera goizeko 8.30etan kiroldegi aurrean.

Astelehena, asteartea eta asteazkenean diapositiba emanaldiak izango dira, Monterronen arratsaldeko 7etan: astelehenean "Patagonia: torre central del Paina"ri buruzkoa, asteartean "Austriatik Nizara skiz" trabesiari buruzkoa, eta asteazkenean "Mesa Turik: Euskal - Venezolar espeleologi espezioa"ri buruzkoa.

Ostegunean hitzaldi-mahaingurua egingo da, Monterronen eta arratsaldeko 7etan hau ere, gaia honako hau: "Aktibitate berrien eragina mendian: parapentea, skia, eskalada, mendiko bizikleta...". Mendiko Asteari amaiera emateko, maiatzak 15 ostirala, beste diapositiba emanaldi bat; Makalu: Ifurrategi anaiek iaz lortutako gailurra.

• **Eguzkiaren eragina**
EKIN emakume taldeak, "Eguzkiaren eragina azalean eta gure gorputzaren zainketa" izeneko hitzaldi bat antolatu du. Datorren asteazkenean arratsaldeko 3etan izango da AED elkartearen. Hizlariak Arantza eta Garbiñe Albisua izango dira.

Erakusketak

• **Errelibeko oleoa**
Bergarako Kultur etxean Ascensio Esnaolak, oleoak daude ikusgai. Datorren 17rarte, hamaika obra ikus daitezke Errotaldeko ormetan.

Ikastaroak

• **Sukaldaritza**
Famili eta Gizarte Heziketarako zentruak sukaldaritza eta gozogintza ikastaroa antolatu du. Guztira 20 orduko ikastaroa izango da eta datorren astearte eta asteazkenean hasiko da, 6.30tik 8.30etara. Izaskun Baglietto sukaldaria izango da klaseak emango dituena eta izena emateko epea zabalik dagoenez, bertara zuzen zaitezketek. Bestalde, ohizko tertuliak ere izango dira, ostegunetan konkretuki, arratsaldeko 4etatik 6etara.

• Bioenergetika eta gantxiloa

Ekin emakume taldeak antolatuta bioenergetika eta gantxiloko ikastaroa izaten da astelehenean eta ostegunetan AEDn. Bioenergetikakoa Maite Zumaldek ematen du eta gantxilokoa Asun Mendizabalek.

Omenaldia

• Zikloturisten irteera

Jose Mari Sanz "Gipuzkoako Bira 90"ean zehar hil zen. Deba garaiko zikloturisten elkarteak kidea ere bazen eta Klubak, irteera bat antolatu du bere omenez. Datorren igandean ospatuko da, Arrasatek irten da eta Deba Garaikoherrri gehienak igaroko ditu: Gesalibar, Arnaio, Oñati eta Bergara. Lizenzia dutenentzat, goizeko 9etan izango da irteera. Guztira 87 kilometro inguruko ibilbidea egingo da. Arrasaten antolatu den irteera hau, Gipuzkoako beste herri batzutarra ere zabalduko da: Zarautz, Andoain, San Pedro, Zestoa, Hernani, Donostia eta irailaren 20an Gatzagan ere ospatuko da.

Jaiak

• San Pankrazio

Datorren 14an Eskola Politeknikoko jaiak ospatzen dela eta, bertako euskara batzordeak Euskal Jaia antolatu du. Honako ekintza hauek izango dira: goizez txistorrada eta Euskal dantza taldeen emanaldia, kirol desberdinen lehiaketak, soka-tirako frogak, eguerdiko 2etan bazkaria, ondoren bertsolarien jaiak honako lau bertsolariekin: Aitor Sarasua, Jon Sarasua, Jon Inaki Izarrelaia eta Jon Maiarekin. Eta afal ostean Iturripeko frontoian, Signaculum Virginitatis eta E.H. Sukarra taldearekin kontzertua.

“.....
 Esan egin behar da EKB ez dela inoiz Euskal Kulturaren Batzarrea izan. Herri honek bizi duen atomizazio politikoaren baitan, EKB sektore horietako baten interesetatik abiatu zen 83an eta azkeneko bere burua autozentsuratzeraino iritsi da. (...) Ohartuta gaude, dagoeneko, funtzioak sortzen duela organoa eta ez alderantziz? (...) EKB erreta ikusten dut eta esan beharrik ez daukadan arren, esan gura dut sinistu egiten dudala sigla horien izenean lanean dihardutenengan, eta baita, beste muturrean orain artean HPINren eta instituzioen izenean lanean ari direnengan ere”.

(Julen Arexola-Leibak Argia aldizkarian 92-4-19)

“.....
 Benetan sentitzen dugu Arrasateko Gestoretako hainbat partaidek mantentzen duten jarrera sektarioa. (...) Albertok sekula ere ez du (kartzelako) hirugarren gradua onartu, postura bat zein bestea hartzen duten presoen legitimitatea edo legitimitaterik eza baloratzen hasi gabe. Gainera, oso harreman ona izan du preso politikoaren kolektibo guztiarekin, eta hanka sartzeko aukera edozeinek duenez, Arrasateko Admistiaren aldeko Gestorek ere zuzenketa egin eta akatsak zuzentzekoa izatea gustatuko litzaiguke”.

(Zutik-ek 92-4-30eko Egin egunkarian)

“.....
 Orainsu entzun dut Arrasate inguruan 17 taldek bi lokal dituztela. Eta hori ezin da horrela izan. Udalek lagundu egin behar dute, lokalekin eta ekipoak eskura jarritz”.

(Norton Gorosabelek Egunkarian 92-5-6)

Zer eragin du polizi-lege berriak udaltzainengan?



Polizi-lege berriak Udaltzainak eta miñoiak desagertarazi egin nahi ditu, Ertzantzan sartuz eta Ertzantzak ordezkaturatuta, honela Gobernu Zentralak baimendutako kupo mugatua handiagotzen delarik. Polizia zentralizatu eta jerarkizatu bakar bat eratzearen alde jokatzeko, Ertzantzak Udaltzaingoarenak diren funtzioak hartzearen alde, edo hauek Arkauteko eskolan sartzeko, Udaltzaingoak ordena publikoko kompetentzia hartzea bultzatzea... gaur egun onartezinak diren euskal gizartearen militarizazioa handiagotzearen alde jokatzeko da, Herriarekin enfrontaturiko polizia eredu baten alde egitea, Udaltzaingoaren kopuru eta funtzioari dagokionean udal autonomia galtzearen alde jokatzeko da.

Alderdi laborala eta sindikalei dagokionez esan beharra dago legea erabat atzerakoia dela. Lege honek banaketa argi bat ezarriko du lan baldintzei, sarrerari, sustapenari, ordaintzei... dagokionean, Udaltzaingo, miñoi eta mikellete eta Udal eta Diputazioetako pertsonalaren artean. Greba eskubidea ere, kendu egiten du.

Era berean, Guardia Civilarena baino errejimen disziplinario zorrotz eta militarizatuagoa ezartzen du, inposatu egiten du lanaldia, ordutegia eta etxebizitza beharra eta erabateko disonibilitatea ere.

Hitz batean esanda, udaltzainok ez dugu beste indar errepresibo bat izan nahi.

JON ALUSTIZA,
UDALTZAINA ETA LABEKO DELEGATUA



ETXEPARE - BILINTX LIBUBUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50

E · S · T · U · D · I · O

I · N · T · E · R · I · O · R · I · S · M · O · A

- Dekorazio proiektuak
- Lokal komertzialen eta etxebizitzaren eraberrikuntza
- Gremioetako ekipo osoa
- Diseinu orokorra

Garibai, 3 bis
ARRASATE
Tfnoa: 77 01 44

ARRASATE
PRESS



77 05 65

Erdu-AEKri ikasturterako dirulaguntza

Azken Gobernu Batzordean erabaki zenez, Erdu-AEK euskaltegiak 1991-92 ikasturterako dirulaguntza gisa 2.150.000 PTA jasoko ditu. Udalak AEKri ikasturtearrerako dirulaguntza eman badio ere, ez da gauza bera gertatu AEK-Jira antolatzeagatik Erduk eginda zeukan diru-eskariarekin eta ezeztatu egin zaio.

Kooperatibetako asanbladak

Kooperatibei asanblada garaia iritsi zaie eta ondorengo bi asteetan burutuko dituzte gehienak: Fagor Electrotresnak, Fagor Arrasatek, Fagor Elecktronikak, Fagor Industrialak eta Fagor Sistemasek gaur egingo dituzte; Copreci eta Fagor Ederlanek, bihar hilak 9; Fagor Automation-ek hilaren 11an eta azkenik, datorren ostegunean, hilaren 14ean, Fagor Kooperatiba Elkartearen asanblada egingo da.

Lagun-Arok Erosmerreko akzioak erosi

Lagun-Arok, Eroskiko Erosmer elkarteko akzioen %15a erosi du. Erosketa horren ondoren, Erosmer-en kapitalaren banaketa hau da: % 53a CECOSA-ren esku, CONSUM balentziako kooperatiba eta Eroskik osatzen duten elkartearen esku; %17a Nekazaritzarako Kreditu Bankuak; %15a Lagun Arorena eta %15a BBKren esku.



Bernak eta Mondrasport ikusleentzat programarik ikusgarrienak

%97arentzat ATB beharrezko

Arrasatearren %30ak maiztasun handiz ikusten du

Audientzia zenbatekoa den jakin eta ikusleen eritziak jaso ahal izateko bi astetan zehar, ATBri buruz egindako 600 inkesta telefonikoen emaitza harri-garriak ezagutarazi dituzte. Inkesta horien arabera, arrasatearren %98ak ATB ezagutu egiten du, %19ak oso ona dela pentsatzen du, % 74ak ona dela, %6ak halanolakoa dela eta %1ak txartzat dauka. Ona edo txarragoa izan, inkestatuen %97ak beharrezkotzat jotzen zuen ATB.

Ikusleen maiztasunari dagokionez, %13ak egunero ikusten du ATB, %16ak

askotan, %50ak noizbehinka, eta %18ak oso gutxitan; beraz, sarritan ikusten dutenak arrasatearren %30era iritsiko lirateke. Ikusle horien arabera, programarik ikusgarrienak *Berriak*, *Mondrasport* eta *ATBketan* lirateke eta aurkezlerik gustokoenak, berriz, Jon Andueza eta Mainer Egues.

Azkenik, inkesta egin zeneko bi asteetan zehar ATB audientziaren hirugarren postuan agertzen da, TVE1 eta ETB1en ondoren, eta TVE2 eta ETB2e eta gainontzeko kate pribatu guztien aurretik.

IZAGIRRE
barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak, Margoak
Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

HUETO Doktorea

**Eztarria, sudurra,
belarriak**

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00
Olarte kalea, 43 Arrasate

**ALMACEN
DE MUEBLES**

**Prezio paregabeak!!
Zatozte!!**

Legarre pabiloia. Gipuzkoa Etorb. 6.
ARRASATE Tfnoa: 79 73 32

NAROKI

Urrezko bitxiak

NAROKI

Opariak, Jostailuak, Liburuak,
Paperdegia
Erdiko kale, 23 ARRASATE Tfnoa: 79 20 47

HIESaren aurkako komiteak mozioa aurkeztuko

HIESaren Aurkako Komite Hiritarrek hiru puntutako mozioa aurkeztu dio Udalari, hurrengo plenoan onartu dezan. Udalari HIESaren aurka lanean dabiltzanei elkartasuna adieraztea, diskriminazio jarrerak ekiditzea, eta Osakidetza eta OMS-ek emandako arauak kontuan hartzea eskatzen zaio.

Bestalde, HIES-aren aurkako ihardunaldien antolatze lanak aurrera doaz eta Udalak 200.000 PTako dirulaguntza emango du.



ONGIETORRIA JAIÖBERRIEI

Xabier Amaiz Azkoaga, apirilaren 21ean.
Iruñe Altuna Morales, 27an.
Maialen Martin Armendia, 28an
Julen Kortabarria Fernandez, 2an.
Mikel Rodriguez Hidalgo, maiatzaren 1ean.
Julen Kortabarria Fernandez, 2an.

ZORIONAK EZKONBERRIEI

Pablo Mayor Lodoso & M^a Rosario Corres
Antoñana. Maiatzaren 1ean, elizaz.

Txandaka

MEDIKUARENGANA JOATEA ETA ORDUA HARTZEA

Ambulategian "Lehen mailako asistentzian" 9 mediku, 3 pediatra, 9 erizain, 3 praktikante eta 5 administrarik egiten dugu lan. Bakoitzak bere lan berezia dauka.

Ambulategiko zerbitzuak goizeko 8etatik arratsaldeko 5ak arte eskaintzen ditugu. Dena den, ordu guztiak ez dira

konsultako orduak. Kontsulta bukatu ondoren baditugu beste lan batzuegiteko: etxeko bisitak, zita bereziak, gure arteko bilerak etb. Arratsaldeko 3etatik 5ak arte goardian daudenak bakarrik gelditzen dira; horrek esan nahi du arratsaldeko orduak ez direla arratsaldeko konsultak, larrialdiak gertatzen ba dira eta hurrengo egunerako utzi ezin daitezkenak ikusteko baizik. Eskertuko genuke hori kontuan hartzea.

Ambulategira etortzeko, telefonoz edo zuzenean etorrita lor dezakezu ordua, bai mediku, pediatra edo erizaintzako. Egun bateko txanda egunean bertan, goizeko 8etatik 9,30tara, edo hurreko egunean 9,30etatik arratsaldeko 5ak arte har dezakezue. Kontuan eduki behar duzue jende askok deitzen duela goizetan eta telefonoa blokeatuta egon daitekela, hori dela eta ambulatoriora etorri nahi duenak hobe du aurreko egunetik txanda hartzea. Batzutan jendeak deitzen duenean ez diote telefonoa hartzen; ezin dute hartu, ambulatorioraino etorri direnak atendi-



Ana Arrieta (*)

tzen bait daude. Dena den, normalki egiten dena telefono dei bat hartu eta mostradorean dagoen bat txandaka atenditu, ez bata ez bestea ez kaltetzeko. Egun batzuetan (astelehena, festa ondoren,...) deitzen duzuenean dena beteta egotea eta ordua hurrengo egunerako ematea gerta daiteke.

Norbait goizean zehar gaixo jartzen bada eta oso garrantzitsua izanez gero, zitarik gabe etor daiteke, eta konsultak bukatu ondoren ikusiko dugu. Hori bai, oso garrantzitsua den edo hurrengo egunera arte itxaron dezakeen ondo neurtzea eskertuko genuke, askotan gertatzen bait da presa gabeko eta beste lanetarako denbora kentzen diguten pertsonak ikusi behar izaten ditugula.

"Lehen mailako asistentzia"ren alaketarekin denbora gutxi daramagu eta akats asko ditugula badakigu. Dena den, hobetzeko asmoa daukagu. Seguruenik jendeak galdera eta kezka pila bat ere izango ditu. Orrialde hauen bitartez egitera gonbidatzen zaituztegu. Gainera, Ambulategiko zerbitzuarekiko desadostasuna edo sugerentziak adierazteko han daude erreklamazio orriak eta irteeran bete besterik ez dago, ia denon artean hobetzen laguntzen dugun.

(*) ANBULATEGIKO FAMILI MEDIKUA



ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea. Tfnoak: 79 22 55 / 79 14 25

ESTETIKA ZENTRUA

Loditasuna

Dieta pertsonalizatuak
Zelulipolisiasak kentzea
Aurpegirako tratamenduak

Santa Kruz, 24-1^a (1^a C eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54



Bizilagunek urbanizazioari dagozkion desadostasunak azaldu zituzten.

Musakolako urbanizazio plana

Bizilagunek kostuaren %25 ordaindu beharko dute

Musakolako urbanizatze proiektua aurkezteko bilera bat egin zuten pasa den astelehenean hirigintza saileko arduradunek, Jose Mari Loitik eta Urdargarainek auzotar eta interesatuekin. Orain dela laupabost urte Musakolako 20. gunearen urbanizazioaren proiektua aurkeztu zen Udaletxean. Baina hilabete batzuk arte ez zitzaion, gune honetan bizi diren bizilagunei proiektuaren azalpena zehazten duen txostena banatu.

Bizilagunek proiektuaren kontrako jarrera azaldu dute eta abogatu eta beste aholkulari batzuekin egin dituzte kontsulta batzuk euren portalak poligonotik kanpo geratzeko helburua lortu nahian. "Gure etxebizitzak nahiko urbanizatuta daude eta poligono hori egin behar bada, gure etxebizitzak kanpo geratzea eskatzen dugu. Bertan dauden enpresak izango dira azken finean irabaziak lortuko dituztenak". Udaletxeak

hobekuntza hauek epe luzera igarriko direla alegatutako bitartean bizilagunek negoziazioaren arazo batzuk azaldu zituzten. Azaldu zuten arrazoi handiena, urbanizazioa enpresaren hobekuntzarako egitea izan zen.

Udalak kostuaren % 75 ordaindu beharko du eta bizilagunek % 25. Horren aurrean desadostasuna agertu dute, eta nahiz eta ordainketa modua finkatu barik egon, edozein ordainketaren kontra daude bizilagunek.

Bilera honetan agertutako kezka eta arazoak aztertzeke egun batzuk hartuko ditu Udalak eta datorren astean beste bilera bat egitea espero da; baina ez bizilagunekin bakarrik, bertan kokatuta dauden enpresa desberdinen arduradunekin ere kontaktutan jartzea espero da.

Azken finean, maiatzaren 20 baino lehen konponbide eta irtenbide bat bilatzea da helburua.

Usteak uste

Azken astea hauetan ikusi ahal izan duguna ikusi ondoren, ezinezkoa egiten zaigu baikorra izatea.

Herri batek merezi dituen politikoak izaten dituela normalean, dio esatera zahar batek. Ez nago batere ados baieztapen horrekin. Gehiegizkoa. Ezin onartu egunero ikusten ari garena ikusi eta gero.

Nire barnean ditudan ardurak azaldu nahi nizkizuke gaurko honetan, irakurle arrasatearra. Ardurak eta animoak.

Politika mundura begiratzen dut eta han eta hemen gezurra besterik ez dut ikusten. Atzo beltza zena, gaur txuria dela defenditzen da berriz. Atzo desegokia bazen, gaur egokia deritzaie. Atzo ez moral, gaur etikoa. Dena norberaren kome-nientziaren arabera. Edota norberaren alderdiarenetara. Ez, herrikoak ez gara horrelako politikoak merezitzeko hainbestetaino gaiztoak. Ez! Hori baino gehiago gara.

Lan mundura begiratzu gero, gauzak ez daude hobeto. Etorkizun beltza langileena. Epe motzean behintzat. Krisisaren ondorioak ordaintzean langilegoa izaten da ordaintzen duen alde bakarra. Nor gogoratuko ote da bere beharrek? Nork borrokatu bere alde? Non egongo ote da gure sensibilitatea? Eta solidaritza?

Garai zailak langabekoentzat. Noiz arte?

J. R. ELORTZA

ITURRIOTZ taberna

**GIRORIK
JATORRENA !!**

Tfnoa: 79 16 04



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Urriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

Eguraldi aldakorra apirilean

Udaberriko eguraldia izan da apirilean, aldaketa ugarirekin. Egun batzutan, 20an eta 24ean, termometroak hogeitasei eta hogeitazortzi gradutaraino iritsi ziren; beste batzutan berriz, 5ean, 8an eta 12an, zortzi eta hamaika gradu artean mugitu ziren gehienez. Behetik begiratu gero, egunik hotzenak 11 eta 12a izan ziren, zero azpiko tenperatura izan zen eta.

Euriak, gorabehera handiak izan ditu. Egun euritsuena 9a izan zen, 31,7 litroekin eta boladarik txarrena, Aste Santutakoa; Östegunetik Igandera egunero euria, 13 - 16 litro batz bestea. Azkenik, boladarik lehorrena hilaren 21etik 28ra artekoa izan zen, tantarik gabekoa.



Salto del Negroko egoera salatuz enkarteladak egin dira egunero.

Pedrotxo eta Zabarte gose-greban

Gaur egarri-greban hastekotan ziren

Jesus Mari Zabarte eta Pedro Guridi, Salto del Negroko espetxean dauden gainontzeko presoan moduan, berriz ere gose greban daude. Gogoratu, gartzelan dauden bizi-baldintzak hobetzeko eskatuz, aurreko aldia 42 egun pasatu zituzten jan barik eta eskatzen zutena onartu egin zuen gartzelako zuzendaritzak. Orduan Zabartek 37 kilo zituen eta Pedro Guridik 42.

Egun batzuk pasatuta, berriro ere gose-greban dira Kanariar Irletan dauden hamalau euskal presoak, dirudienez zuzendaritzak agindutakorik ez du be-


tetzen eta. Gaurkoarekin, bigarren gose-greba honen hamalagarrena betetzen dute. Presoen senideak adierazitakoaren arabera, gartzelako zuzendaritzak gaurko erantzunik ematen ez badu, presoak egarri-greban jarriko omen dira.

Presoen elkartasuna adieraziz eta bizi duten egoera salatzeko, joan den larunbatean manifestaldia burutu zen herriko kaleetan zehar, aste osoan Sebero Altuben enkarteladak egin dira egunero eta HBko zinegotziak gose-greban hasi ziren atzo.



LORAMENDI KIROLAK

UDABERRIKO ZURE MODA!



Parke eta lorategiak zaintzeko gero eta zerbitzu gehiago daude

Gero eta berdegune gehiago

Guztira 250.000 lore eta landare sartuko dira

Joan zen astean bukatu zen parke eta lorategien mantenimentua zaintzeko, proposata berriak aurkezteko epea eta maiatzaren erdialdera jakingo da mantenimenduz zein enpresa arduratuko da. Azken zazpi edo zortzi urtetan, Eloorrioko Parques y Jardines enpresa izan da arduraduna.

Bete beharreko zerbitzuak honako hauek izango dira: zuhaitzen inauzketa, ongarriztea, konponketa, soropil mozketa, lore eta landare berriek landatzea: 3.000 petunia, 3.000 jeranio, 4.000 begonia, 3.000 damaskina, 4.000 pentsa-

mentu, 4.000 primula 4.000 anthirrimum eta 250.000 zuhaixko eta landare.

Berdeguneen barruan bi maila daude; industrialdeetakoak eta hortik kanpokoak, publikoak direnak. Hiri-gintzako erreglamenduak agintzen duenez, industria gunetan hiritargari eta sektore direnak, lasaitasunerako gu-
neak gorde behar izaten dituzte.

Bestalde, berdegune publikoen barruan Monterron eta Santa Barbara dira parke publiko handienak. Monterronek 59.318 metro karratu ditu eta Santa Barbarak 56.908.

Udalekuetako matrikula

AEDk Uztaileko Udalekuetarako matrikula epea zabaldu du jadanik. 4tik 22rarte egongo da zabalik eta izena emateko ikastetxeetara edo AEDra jo dezakezue, eta izena emateko orria eta kutzako agiria entregatu beharko da.

Ur eta zabor tasak

Arrasateko Udalak herritar guztiei honako mezu hau zabaltzen die: ur eta zabor tasen ordainketa maiatzaren 11tik 22ra bitartean ordaindu beharko dela. Epe hori pasa ondoren %20ko gainkar-guarekin kobratu beharko dira.

Iturbide egoitzaren hobekuntza

Iturbide egoitza hobetu eta kondizionatzeko aurrekontua onartu da. Orain arte egindako hobekuntzetan 13 miloi gastatu dira baina guztira 43 erabiliko. Gela bakoitzean bainu eta dutxa batzuk egitea da hobekuntzaren asmo handiena. Gaur egun 60 emakume eta 30 gizonetako bizi dira bertan. Elbarritu fisikoen 65.000 pezeta ordaintzen dute, gela individuala dutenek 60.000 eta gela konpartitzen dutenek 50.000.

Uharkape konponbidean

Badira hilabete batzuk Uharkapeko obrak bertan behera geratu zirela eta badirudi oraingoan konponbidean sartu dela. Hala ere, oraindik denbora pizka bat itxoin beharko dugu bizilagun, eta enpresa eta Udalaren arteko adostasuna lortzeko.



DANKART

Estetika eta ileapaintzaile
Eskola

M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.

Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR

**BURGALES
JATETXEA**

**Jaki goxoak eta
giro atsegina**

**Durana, 12
ARETXABAETA**

EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24



**PINTURAK eta
PAPERZTAPENAK**


Aragoi, 6-3. Esk.

ARRASATE Tfnoa: 77 00 39



—▲—
Askapenak antolatuta, Kubarekiko

elkartasun astea burutu da aste honetan. Aste horren barruan, hitzaldiak, bideo-emanaldia eta... Portaloian jarri dituzten argazki erakusketa, Kubako argazkiz osatua noski!



—▲—
Frantziskotarren megoitza eraberritzeko lanek aspaldi behar zuten hasita, baina lege-trabak medio oraindik ez dira hasi eta **partxeoak** egin behar izaten dituzte noizbehinka. Aurrekoan teila-tuko zati bat erori eta gero hasi ziren konponketetan; oraingoan, berriz, erori aurretik hasi behar izan dute. Gaitzerdi!

—▲—
Bada ez bada ondo prestatuta egotea inportantea dela eta, joan den astean Gazteluondo Ikastolan eta Ferixalekuan premiaz **eraikuntza husteko probak burutu zituzten**. Probak nahiko ondo atera ziren; hala ere, ez dadila benetan egin beharrik tokatu!

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

**MUSAKOLA
OSTATUA**

**Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak**

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

Izen
PROPIOAK



Poliki poliki badatoz San Juanak!! eta urtero bezala, San Frantziskoko kalistroetan hasi zaizkigu umeak tanborradarako entsaiatzen. Egia esan Arrasate Press-eko langileoi, ia bertan egonik, buruko min handiak ematen dizkigute. Baina zer egingo diogu... gero San Juanetan guztiok, tanborrada ikusten ondo pasatu nahi izango dugu eta.



San Frantzisko eleizara joateko ohitura dutenek aldaketarik igarriko zuten jarlekuetan seguru. Izan ere, joan den astean eleizako **banku guztiak kalistroetara atera**, lijatu eta bernizatu egin zituzten. Sitsak ere igariiko zion.

● **Anton Alberdi**, orain arte Fagor Elektrodomestikoko materialen zuzendaria izan dena aurrerantzean Elektrotresnentzako osagarrien eta pieza teknikoetako zuzendaritza industrialaz arduratuko da.

● **Juan Antonio Hormaetxea**, 36 urte, Arrasate Atletiko Taldeko presidente izendatu dute. Juan Antoniok 10-12 urte daramatza atletismo munduan eta hortik kanpo AMATen lan egiten du. Izendapen hori dela eta, ondorengo lau urteetan Arrasate Atletiko Taldea zuzendu beharko du.

● "Garantía viva" eta "Garantía de satisfacción" dira Fagor elektrotresnen lema berriak. 518 partaide izan ziren eta irabazleak honako hauek: **Iñaki Kortabarria, Jose Antonio Mediavilla, Eloi Irazabal, Jose Mari Epelde, Javier Eraña** eta **Eduardo Gil**.

HAURRENTZAKO ESKAINTZA

Lente apurtezindun monturak
9.500 PTatik aurrera eta
urtebeteko apurketa-garantiarekin



GARAGORRI
OPTIKAK

GAZTEENTZAKO ESKAINTZA

Monturak 3.000 PTatik aurrera




3. ADINEKOENTZAKO ESKAINTZA

Lente apurtezindun monturak
9.500 PTatik aurrera eta
urtebeteko apurketa-garantiarekin



Iturriotz, 29 ARRASATE Tfnoa: 79 16 98
Bidekurutzeta, 13 BERGARA Tfnoa: 76 13 73



Hilaren 17ra arte, Ibai-Arte dendarien elkarteak egindako **anagramen lehiaketan** parte hartu zuten lanen erakusketa izango da ikusgai Abaroan. Erakusketa ez da oso ikusgarria, baina gusto guztientzako anagramak ikus daitezke. Joan eta konturatuko zarete horretaz.


Ikerlanen kirol mundurako

bi proiektu atera dituzte aurrera, seguruen goi-mailako kirolarientzat baliagarri izango direnak: bata korrika egiteko zinta eta bestea norberaren indarren probetxamendua neurtzen duen bizikleta. Oraindik izen handiko kirolariak ez dituzte tresna horien probatu, baina laster hurbilduko dira, **Sabino Padilla** tartean da eta.

HITZALDIA

Eguzkiaren eragina azalean eta gure gorputzaren zainketa

Hizlariak: **Arantxa eta Garbiñe Albizua**
 Eguna: **maiatzaren 13an**
 Ordua: **arratsaldeko 3etan**
AEDren lokaletan



EKIN Emakume taldeak antolatua



Hemen da finala

Bukatu dira dagoeneko sailkapen kontuak eta baditugu bi finalisten izenak: Argi Ibili eta Los Heredia. Final laurdenak eta finalerdiak gogorak izan dira, penaltiak erabakiorrak, eta jakina, horrelakoetan ezin izaten da esan merezimendu gehien egin duena sailkatu denik. Hala ere, penaltiak jaurtitzera iristeak ere ez du meritu gutxi.



**DEBA
GARAIA**

INMUEBLE ETA FINANTZ AGENTZIA

ITURRIOTZ, 23 etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 13 02 Faxe: 77 14 27

**IOSEBA
KONTENEDOREAK**

Urriburu, 23. 4.a eskuma.
Tfnoa: 79 61 18
ARRASATE

**RUMBA
TABERNA**

Iturriotz, 20 ARRASATE Tfnoa: 79 20 00

Auto-soinua
Karbuzazioa
Autoarentzako
osagarriak

AGUSTIN

Uribarri Etorbidea, 16
ARRASATE
Tfnoa: 79 73 58



FINALISTAK



Argi Ibili: Angel, Ramon, Luma, Pako, Fede, Txema, Do eta Bunder.



Los Heredia: Juani, Iban, Andres, Sebas, Jon Mikel, Jon, Joseba eta Pedri.




Akaitegi Express: Alfredo, Pelutxi, Sixto, Rafa, Goio, Intxauspe, Mikel, Iñaki, Fito, Dabid eta Eduardo.



G. P. Noski: Gregorio, Juan Mari, Miguel, Kutxo, Karlos, Candi, Antxon, Txema, Piru eta Jesus Bouzon.

JMA





Bai final laurdenetan eta baita final erdietan ere, penaltiak jaurtita erabaki ziren hainbat partidu. Kasu horietan aurrez aurre izaten dira aurrelaria eta atezaina; normalean, ate zaina ateratzen da galtzaile.

EMAITZAK

Final Erdiak


Ostirala, 1
Argi Ibili 3 V. C. Daglas 1
Los Heredia 5 G. P. Noski 5

Igandea, 3
Los Heredia 5 G.P Noski 3
Argi Ibili 2 V. C. Daglas 4

Bostgarren eta selgarren postuak


Larunbata, 2
Adelaida 5 Lorategi Potroak 3
Arrasate Kirolak 5 Akaitegi Express 4

Igandea, 3
Adelaida 2 Arrasate Kirolak 5



LASO ARREGI argazkidenda

Alfontso Jakintsua Plaza, 3
ARRASATE
Tfnoa: 79 12 75



Elektroinjekzio
Zerbitzua

ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5
Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

STIHL Leniz Motor

- Nekazal makinaria
- Basogintzarako tresnak
- Lorazaintza
- Motozikleten salmenta eta konponketa

Gipuzkoa Etorb., 9 ARRASATE Tfnoa: 79 11 78

Osorik pub

Ignazio Zuloaga kalea. Arrasate



Txutak

Amaiera larunbatean

Larritasun handiak pasatuta izan bazen ere, *Argi Ibili* eta *Los Heredia* taldeek finalerako pasea eskuratzea lortu zuten joan den asteburuan. Beraz, larunbat arratsaldean, bostetatik aurrera, aipatutako bi taldeen arteko lehia ikusteko aukera izango da. Talde baten zein bestearen helburua, berbera: Zaldibarko Futbito Txapelketa irabaztea.

Honelako partidu baten aurrean faboritoei buruz hitz egitea beharrezkoa da, eta zaila era berean. Printzipioz, apustuak *Argi Ibili* taldearen alde daude, txapelketa guztian zehar erakutsi duen erregularitasunagatik besterik ez bada ere. Hala ere, ez dago fidatzerik eta

Los Heredia arerio beldurgarria da, baloia sekula galdutzat ematen ez duen taldea da eta. Betiko zalantzaren aurrean gaude, bihotza eta buruaren arteko lehiaren aurrean. Joko teknikoa eta odol hotza baliogarri izan daitezke une askotan, baina baita bihotz beroa eta jokoan jartzen den gogoia ere.

Gauzak horrela, oraingoan ez gara pronostikoen saltsan sartuko, ez asmatzea errazena izatetik aparte, inoren alde ez azaltzearren.

Finala arratsaldean jokatuko da eta, Txapelketako hirugarren eta laugarren postuak erabakitzekeo partiduari, berriz, eguerdiko hamabietan emango zaio hasiera. Aurrez aurre, *Video Club Daglas* eta *G. P. Noski* taldeak izango dira; neurketa parekatua hau ere. Dena dela, faboritorik aipatu beharko balitz *Video Club Daglas* aipatuko genuke, *Argi Ibili* taldea finaletik kanpo lagatzeko zorian izan dena.

DATORREN ASTEAN

Hirugarren eta laugarren posturako

Larunbata, 9

V. C. Daglas G. P. Noski (12etan)

Finala

Larunbata, 9


Argi ibili Los Heredia (17etan)

Foruen



Gure berezitasuna: rabak

Foruen Plaza, 2 Tfnoa: 79 06 16
ARRASATE



EGIDO

Automobilarentzako
ordezko piezak

Legarre Pabilioia. ARRASATE
Tfnoa: 79 62 11

ESKIÑA taberna

Goizeko 7etan
zabaltzen dugu

Olarte, 25
ARRASATE
Tfno: 79 20 20

GOZOKIAK • KAFEA



AKELARRE

ESKUZ EGINDAKO GOZOKIAK

Tartak, pastel txikiak, pastel bereziak,
gurinezko pastak, opiltxoak, ezkontza-tartak.

ENKARGUAK: 77 00 71 tfnoan.

Zarugalde, 54 ARRASATE

Eduardo García Matilla madrildarra, Kontsumitzailen bulegoak antolatutako

Hezkuntza, kontsumoa eta publizitateari buruzko ikastaroan hartu du parte. Eduardok 21 urte daramatza Telebista Espainiarrean lanean eta Complutenseko Informazio Zientzi Fakultatean eman ditu eskolak, publizitatearen analisi kritikoaren espezialitatean.

— Publizitatea aurrera al atzera doa?

— Nire ustez publizistak garai txarra igarotzen ari dira, Zapping-aren erruz batez ere. Telebistan anuntzioak jartzen direnean jendeak gainontzeko kateetan zer dagoen ikusteko aprobetxatzen du, ondorioz argi dago publizitate tradizionalak gero eta eragin txikiagoa duela.

— Beste zerbait aurkitu beharko dute, ezta?

— Horren aurrean produktugile eta publizistak formula berrien bila dabilta, publizitatea kamuflatu eta programen barruan izkutatzen. Teknika horiek askatasun pertsonalaren manipulazioa dakarte.

Subliminal puroa, hau da, begien aurretik abiada handian mezuak pasatzen dituzten makinaren erabilerarik ez da demostratu, baina kamuflaia teknika ugari erabiltzen ari dira.


— Mezu subliminalak tradizionalak baino eragin handiagoa du?

— Inork ez du demostratu publizitate subliminalak eragin handiagoa edo txikiagoa duenik. Subliminalaren erabilerak, publizista batzuk pertzepzio kontzientea manipulatzeko duten interesa erakusten du bakarrik.

Estatuko lexislazioak de-

Eduardo García Matilla

Publizitatearen mainak azaleratzen



bekatuta dauka publizitate subliminala egitea, baina ez dago eraginari buruzko probarik. Orain esperimentuak egin nahi ditugu ea ondorioen batzuk ateratzea lortzen dugun. Dena dela, subliminalaren erabilera ikertzeko orduan, duen eraginari baino garrantzi handiago ematen diot manipulazioari.

— Telebistaz gain, beste medioak erabiltzen dira?

— Argazkietan telebistan baino mezu kamuflatu gehiago ematen dira eta sortzen dituenaren asmoa kontsumitzailearen pertzepzio kontzientea engainatzea da.

— Mezu subliminalak debekatu egiten ditu legeak; zuk zer egingo zenuke?

— Subliminal garbia debekatu egingo nuke, eragina izan edo ez izan, subkontzientearekin jolasteak arriskua duela uste dut eta. Hori bai, aurrez, izan ditzaken ondorio txarrak demostratzen saiatuko nintzateke.

Mezu kamuflatuak dago kienez, jendea gehiago jartzen saiatuko nintzateke. Nire asmoa irakasleak ikasleei ikertzeko eta kritikatzeko gaitasuna ematea litzateke, ez bakarrik publizitate subliminalari buruz, baita bes-

te publizitateaz eta telebistaz ere. Kaleko jendeak konturatu behar du beste batzuk eguneko 24 orduak ematen dituztela gu nola engainatu pentsatzen. Jendeak horren aurrean defendatzen jakin behar du.

— Zein portzentaiatan emango lirateke mezu subliminalak?

— Ez dago ikerketa sakonik, baina esango nuke anuntzioen %1ak mezu izkutuak dituztela, azken aldean proportzio horren beharakada izan bada ere.

— Mezu subliminal gehienetan sexua agertzen da; zergatik?

— Publizitateak instintu primarioetan eragin nahi izaten du, azkar erreakzionatzen duten instintuak dira eta. Gizonarenak ahuldu egin dira, esaterako inork ez du edaten egarria duelako bakarrik edo arropa kendu bero egiten duelako, jendea mugiarazten duen beste estimulu artifizial klase bat dago. Oraindik bizirik dagoen instinto primario bakarra sexua da, hortaz saldu nahi den produktua eta sexua lotu egin nahi izaten dira, baina jendea ohartu barik.

— Publizitateak, beraz, nondik jo beharko du?

— Publizitate tradizionalaren beharakada ikusten ari gara eta pareko formulak zabalkundeak, patrozinoak, mezenazgoak, parterrak (anuntzianteen programak)..., orokorrean sorkuntza eta manipulazio gehiago ikusiko dugu.

— Beraz, publizistek sorpresak emango dizkigute?

— Ikusten ari garen programa publizitatea dela konturatu ez gaitzen saiatuko dira. Euren obsesioa programetan sartzea da, baina formula berriak ere aurkitu beharko dituzte.

— **“Esango nuke anuntzioen %1ak mezu izkutuak dituztela”**

Zer irakurtzen dugu arrasatearrok?

Ohituraren poderioz, jende askok, egunero edo astean behin, egiten du prentsa saltokietara daraman bidea. Nik neuk bide hori egiten dudanean, badakit zer erosten dudan, baina ni baino lehentxoago edo berandutxoago doanak zer erosten du? Zein da Arrasaten gehien saltzen den aldizkaria? Eta egunkaria?

A ipatutako galderei eta sor daitezken beste batzueri erantzuna eman ahal izateko, Biteri Etorbideko kioskoa, Portaloiko prentsa saltzailearen aretoa eta San Andreseko Doctor Bañez kaleko banatzailearena bisitatu ditugu. Batzuk zein besteek emandako erantzunak, bitxikeria batzu izan ezik, oso antzerakoak izan dira eta galdetutako hiru tokietako erosleen joerak berdintsuak direla soma daiteke.

DV eta Hola! errege erreginak

H asteko, egunkariak aldizkariak baino gehiago saltzen direla esan behar da. Egunkarien artean, gehien saltzen dena eta gainera diferentzia handiz, *El Diario Vasco* da, ondoren *Egin*, gero *El Correo*, *El Mundo* eta

azkenik *El Pais* eta *Deia* izango lirateke, aipatutako ordenean.

Puntu eta aparte egin behar zaio *Egunkariaren* ka-

suari, harpidetzen sistemaz funtzionatzen duenez kioskoetan gutxi saltzen da eta. Badirudi, kioskoetan saltzen dena banatzen den erdira ere


ez dela iristen, guztira 200 inguru. Beraz, *Egunkaria* salmenta zerrendako hirugarren postuan kokatu beharko litzateke.

Egunkariak alde batera utzi aurretik, kirolez arduratzen direnei buruz, *Marca* egunkaria izugarri saltzen dela aipatu behar, batez ere San Andresen.

Aldizkarien artean, bihotzeko aldizkariak egiten dituzte salmentarik handienak, zehazki esateko *Hola!* eta *Pronto* aldizkariak. Ondoren, sailkapen horretan telebistako programei buruzko informazioa dakartenak egongo lirateke; *Teleprograma* eta *Teleindiscreta* aipatzen ziren gehien. Aipatutakoen ondotik etorriko lirateke beste guztiak: emakumea, moda, zientzia, politika edo eta kirolaz hitz egiten dutenak.

Irakurleen ohiturak

A rgi gelditu da jendeak zer erosten duen gehien, baina behar bada interesgarria izan daiteke noiz eta nola erosten duen jakitea.



Irakurle bakoitzak bere irakurgaia izaten du.

Lehenik, orokorrean hartuta, asteburuetan astean baino egunkari erosle biltzen direla kiosko inguruetan.

Eguneroko erosleei dagokienez, egunkariaren salmenta goizeko gauza dela aipatzen dute prentsa saltzaileek, goizeko hamaikak artekoa. Hau da: jende gehienak egunkaria lanera joan aurretik erosten du edo bestela etxeoandreek hartzen dute erosketak egitera joatean. Lanetik irten eta gero erosten dutenak gutxiengo dira, beraz.

Errepartoarena ere kontuan hartzeko gauza da, kontsultatutako hiru prentsa saltzaileek bertan saltzeaz gain etxeetara eramaten dituzte eta. Egunkaria oso goiz nahi dutenak, tolostuta eramatea gustatzen ez zaienak, ate aurreraino eramatea nahi dutenak... denetarik dago irakurleen artean. Salmenta ziurtatzearen egiten den ohitura zaharra banaketarena.

Irakurlegoaren aldaketa

Nolabait datuok eta sailkapena alde batera utzita, irakurlegoaren joeraz ere hitz egin digute. Aipatutako hiru saltokietako jabeek hamar urte baino gehiago daramate egunero egunkari eta aldizkariak saltzen; alde horretatik, irakurleen aldetik gertatu den aldaketaz ohartzeko aukera izan dute. Zentzu horretan, irakurleak irakurgai arabera aldatu



Gaur egun irakurleen begien aurrean denetarik izaten da, aukera zabala da eta.

direlako adierazten zuten. "Lehen zegoen aukera oso murrizta zen eta jende guztiak aldizkari berberak erosten zituen; orain, edozein gairi buruzko informazioa ematen duten aldizka-

riak aurki daitezke eta jendeak denetarik erosten du. Honelako interesaduzula, ba honelako aldizkaria aurkituko duzu, denetik dago. Lehen, transizio garaian, jende gehienak interes handia

erakusten zuen politikaz, eta politikaz hitz egiten zuten aldizkariak saltzen ziren gehien, gaur gertatzen ez dena".

Politikaz hitz egiten duten aldizkariak jendearentzat interesa galdu badute ere, ez da gauza bera gertatu aldizkari pornoekin eta, zertxobait jaitsi badira ere, oraindik ondo saltzen dira. Kontraesana badirudi ere, jendeak kirolari buruz hitz egiten duten egunkariak erosteko ohitura duen moduan, ez du kirol aldizkaririk erosteko ohiturarik.

Azkenik, aipatu beharrik ez dago azken aldean aldizkari ugarik, informazioa saltzeaz gain beste opari asko ekartzen dutela erantsita. "Horrelakoetan - zioen saltzaileetariko batek - ale guztiak agortzen dira". Hala bada, zenbat irakurtzen ote du jendeak.

Salmenta datuak

Azpiko kuadroko datuak boteprontoan bota eta halaxe jasotakoak dira, gutxigorabeherakoak; beraz, ez dira fidagarriak. Dena dela, beste ezertarako ez bada ere, Arrasateko irakurleek dituzten gustoez jabetzeko balioarriak izan daitezke.

	Biteri Plaza	Portaloia	San Andres
DV	900	350	300
Egin	250	120	70
El Correo	90	60	50
El Mundo	60	60	20
Hola!	80	60	30
Pronto	70	45	30
Teleprograma	50	35	25

OTXOA

Hazi aukeratuak,
pentsuak eta
fitosanitarioak

Mondragones, 1 ARRASATE
Tfnoa: 79 86 70

OLA-OSTE

Kirol denda

Bizkaia Etorb. 10
ARRASATE
TFNOA: 79 65 34

LORATEGI

taberna

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67



Gipuzkoako korrikalari onenak Urkulun izango dira igandean

XIV. Otala-Zelai krossa igandean Urkulun

Otala-Zelaiko krossaren barruan senior, junior, beterano eta emakumeentzako lasterketak izango dira igandean, Urkuluko urtegiaren zirkuitoan. Gizonezko beterano eta seniorrek bi buelta emango dizkiote urtegiari, 13.400 metro guztira; junior eta emakumezkoek, berriz, buelta bat, 6.700 metro.

Lasterketa goizeko 11etan hasiko da ha-

siera eta Gipuzkoako korrikalari onenak bertan izatea espero da, antolatzaileek jarri dituzten sariak ez dira nolana hikoak eta: 20.000 PTA lehenentzat, 15.000 PTA bigarrenentzat eta 10.000 PTA hirugarrenentzat. Horretaz gain, Joxe Apalantzak 42 minutu eta 10 segundurekin duen lasterketako errekorra norbaitek gaitzen badu, 25.000 PTA gehiago eraman ahal izango ditu.

Hurrengo partidua

Azkenean ez zen posible izan eta mon-dragoetarrek puntu bakar batekin konformatu behar izan zuten Amorebietaren aurkako partiduan. Eraitza, 3 eta 3koa, ezin da txartzat hartu, Mondra 0 eta 2 galtzen egon zen eta. Gainera, Amorebieta sailkapeneko laugarren postuan egotea ere kontuan hartzekoa da. Beraz, ongie-torria izan dadila joan den astean lortutako puntua.


Asteburu honetan ere, ailtasun handiak izango dira arrasatearrek. Izan ere, Mondrak Galdakaoren aurka jokatu du, sailkapenean atzetik oso gertu duen taldea. Bizkaitarrek irabaziko balute, arrasatearrendik puntu batetara jarriko liriteke, baina garaipena arrasatearren-tzat izango balitz bost puntutako abantaila lortuko lukete. Beraz, partidu horretatik zerbaitekin bueltatzeak izugarriko garrantzia dauka; dudu barik.

Arkaux eta Idigorasek jakin badakite orain arte aipatutako guztia eta saiatuko dira futbolarietara beharrezko zaien konfidantza eta morala ematen. Hala ere, asteroko mamua agertu da, bajena, alegia: aste honetan, Txosa, lesio bat medio eta Aranburuzabala txartelen erruz.



San Isidro saria

Igandean, goizeko 10.30etatik aurrera VIII. San Isidro Saria burutuko da Musakolan, kadete mailako txirrindularientzat. Espero diren 120 txirrindulariek 47 kilometrotako ibilbidea egin beharko dute: Musakola - Aretxabaleta (Almen-en bira egin) - Arrasate (Eroskin bira egin) - Aretxabaleta - Eskoriatza - Aretxabaleta - Arrasate - Oñati - Arrasate.



FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE

Aitor Urizar

Arrasateko errekorra gainditzekotan

Aitor Urizar atletismoa egiten ari da, baina ez korrika, gehienek bezala, jaurtiketen munduan baizik. Mailu jaurtiketa egiten du Aitorrek, seguruen atletismoan egiten den kirolik ezezagunena. *"Mailu jaurtiketak ez du bat ere prestigiorik, oso ezezaguna da. Kanean mailu jaurtitzaren munduko onena zein den galde-tuz gero, seguruen ez luke inork asmatuko. Ni neu pertika egiten hasi nintzen, baina mailua jaurtitzeko inor ez zegoenez horri heldu nion"*.

Aitorrek mailua orain lau urte heldu zuen lehen aldiz eta dioenez oraindik asko ikasteko dauka, erabiltzeko oso tresna zaila da eta. *"Buel-tak behar bezala ematen ikasteko beharrezkoak dira 4 - 5 urte gutxienez. Nire ustez zailena mailua menderatzea da, zazpi kiloko tresna abiada handian erabiltzea ez da brometako gauza eta. Indarra eta teknikaren arteko oreka behar da, bainabatez ere indarra hanketan izan behar da, besoekin mailua eutsi besterik ez da egin behar"*. Lau-bost urte behar omen dira mailua ondo jaurtitzaren ikasteko, eta Aitor horretan lau urtetan dabilenez, oraintxe hasi da

emaitza onak lortzen. *"Oraindik ez dut Euskadiko Txapelketan parte hartzeko behar den markarik lortu, baina oso gertu nabil, 40 metro jaurti beharra dago eta ni 39 metro eta 56 zentimetrotaraino iritsi naiz. Asmoak? lehenengo Arrasateko 48 metroko errekorra gainditzea, gero ikusi egin behar"*.

Euskadiko Txapelketarako marka minimoa lortzeko eta Arrasateko errekorra gainditzeko, oraindik gogor entrenatzen jarraitzeko asmoa azaldu du Aitorrek, baldintzak onenak ez bada ere. *"Astean lau egunetan egiten dut entrenamendua, bitan pesekin eta bitan teknika lantzen. Taldeko korrikalariak ez dute entrenatzeko tokirik, baina jaurtitzailuek okerrago gaudu, jaurtiketak egiteko tokirik ez dago eta. Nire ustez atletismoa, eta batez ere jaurtiketak, suspertzeko eta gazteek ikus gaitzaten, toki egokien beharra dago. Horrela eurek ere, interesa erakutsiko luketela uste dut"*.

PODIUMA



◆ X. Arrasate - Oñati lasterketa

Datorren igandean, hilak 17, goizeko 11.30etatik aurrera Arrasate eta Oñati arteko kross lasterketa famatua burutuko da. Proba honetan parte hartu nahi dutenek, honako toki hauetan eman dezakete izena: Aloña Mendi Elkartean arratsaldeko 7etatik 9etara, Arrasate Kirolak dendan, arratsaldeko 4.30etatik 8etara eta lasterketa egunean Monte tabernan goizeko 9etatik 11ak arte.

◆ Txirrindularien artean ondoen gazteenak

Dorletako Txirrindulari taldeko kategoria guztietako partaideek lasterketaren bat izan zuten joan den asteburuan. Emaitza onena Jose Javier Sedano infantilak lortu zuen, Eskoriatzan garaile atera zen eta. Kadeteetan, berriz, Deban Iraultza Alberdik lortu zuen postu onena, zortzigarrena. Jubenil mailako txirrindulariei dagokienez, aipagarrienak Alberto Roldanek Seguran lortutako seigarren postua eta Zigor Urainek Bergaran lortutako hamargarrena lirarteke.

◆ Arrasate Atletiko Taldearen asanblada

Joan den astean Monterronen Arrasate Atletiko Taldearen asanblada burutu zen. Asanbladan, kirol balantzea egiteaz gain, diru-kontuen berri ere eman zen, azalduz taldeak 37.127 PTako defizitaz bukatu zuela urtea eta aurtengo aurrekontua 1.675.000 PTakoa dela. Horretaz aparte, Arrasate Atletiko Taldeko presidentearen hautaketa egin zen; J. A. Hormaetxea izendatu zuten.

◆ CSKA Moscu-Mepamsa Iturripen

Datorren larunbatean, hilak 16, arratsaldeko 6etatik aurrera izugarritzko eskubaloi partidua jokatuko da Iturripen, CSKA Moscu eta Mepamsa taldeen artekoa.

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tfnoa: 79 31 99



PAZI-OLA S.A.
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 91

Mendizaletasunaren arriskuak


Mendia inguru ederra da, erakargarria; gero eta jende gehiago da mendizale.

Baina mendia inguru zaila da, gogorra eta sufritua beti, sarri engainagarria, ezustekoen zaku haundia.

L-ak beti luzitu beharko luke motxilan behera zintzilik, etxean ahaztu gabe.

Espaloian aurrera estrapuz egin edo buruaz jota farola mailatuak gara denok edo gehientsuenok. Haundia litzateke mendian halakorik ez izatea, istripuak gertatzen dira, sustoak, eskapadak, aberia latzat eta inoiz heriotzak ere bai. Eta azken bolada honetan gehiago gainera. Asko? ez dakit; beste urte batzutan baino gehiago.

Baina komunikabideek inoiz ez bezalako espazioa eskaini diote kontu honi eta jendea esku horietatik jabetu da gorabehera hauetan. Dena den, kasu bakar batzuk izan dute ohiartzun hori, morbo-



rako beta izan dutenek, hori da eskatzen dena, hori da saltzen dena (istripu latza da gizarte hau horrela hezia izatea ere, baina bueno...). Gainerakoak diskretuki pasa dira, titularrik gabe, erdi anonimatoan, ingurukoei tragua mikatzagoa egin gabe, normal.

Mendizale baten heriotzak, etxekoengandik hurrengo, gainerako mendizaleengan uzten du zaporerik mikatzena, baina horregatik motxila bizkarrean hartu eta beti bueltatzen gara. Menditik mundura ez dut uste hainbeste alde dagoenik, loteria guztiok jokatzeko dugu,

guk gutxigorabehera badakigu zenbat zenbakirekin gauden, beste batzuk ez dakit, baina hamaika ikusten da jokuari kanpotik begira daudelakoan boletok pila galanta karteran kabitu ezinik dutelarik.

FELIX INURRATEGI

IRAGARKI HAU 5.800 ETXETAN SARTU DA.

**ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO
ARRASATE PRESS AUKERATUZ GERO.**

EUSKAL FAMILIETAN IKASI!!!

Euskara ikasten
ari zaretenentzako egonaldiak
euskal familietan.

Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen "Egonaldiak Familia Euskaldunetan"
1992eko plangintzan parte hartu nahi duten ikasleentzako arauak:

- Plangintza 1992eko **uztailetik irailera bitartean** gauzatzen da.
- Ikasle bakoitzaren egonaldia **HILEBETEKOA** izango da.
- Ikasleek **18tik 35 urtera** bitarteko adina izan behar dute.
- Parte hartu nahi duten ikasleek **inskripzio-fitxa bete** eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailera bidali behar dute. Inskripzio-fitxa jaso, berriz, bai Udaleko Euskara Zerbitzuan zein Udal Euskaltegian edo AEKn jaso daitezke.
- Inskripzio-fitxa aurkezteko azken eguna maiatzaren 29a da.
- Hartuko duen familiari **15.000 PTA** ordaindu beharko dizkio kasleak berak.
- **Langabetuei erreztasunak** emango zaizkie ordainketa egin ahal izateko.




Informazio gehiagorako, jo Udaleko Euskara Zerbitzura. Tfnoa: 79 09 00

Eskola arteko abesbatzen V. topaketak

Datorren 16an Deba Garaiko eskola arteko abesbatzen V. topaketak izango dira Musakolako polikiroldegian. San Frantzisko Xabier ikastolako 25. urteurrenaren ekitaldien barruan sartzen da honako hau ere.

Lehen topaketa Santa Teresako elizan ospatu zen 300 haur eta 5 abesbatzekin. Bigarrenetik aurrera eta oraingoan ere helduen abesbatzek hartu dute parte: Aretxabaletakoa, Goiko Balu eta Aramaixoko Bixente Goikoetxea abesbatzak.

Bestalde, izena eman duten haur abesbatzak honako hauek izan dira: Bergarako Aranzadi Ikastola, Aretxabaletako Kurtzebarri Eskola Publikoa, Eskoriat-



zako Almen eta Arrasateko Umezaintza Haur Eskola, San Viator eta San Frantzisko Xabier. Aldi honetan, Udalen eta Lan Kide Aurrezkiaren laguntza izan da hasieratik.

Topaketa udaberriari izaten da eta bertarako arau eta baldintzak otsaila-martxoan zabaltzen dira; aurtengoak

hauek izan dira: instrumentuen erabilpena zuzendari bakoitzaren esku utziko da, haurrek zuzenean sortutako soinuak bakarrik onartuko dira, abestiak zuzeneko ahotsaz egindakoak izango dira.

◆ Hika-ri buruzko ihardunaldiak

Hilaren 19tik 28ra bitartean San Frantzisko Xabier ikastolan "Hika" tratamenduari buruzko ihardunaldiak burutuko dira. "Arrasateko euskararen azterketaren aurkezpena", "Hika tratamendua balore sozio-afektiboak", "Hika morfologia", "Hika telebistako pelikuletan" eta "Hikak badu etorkizunik? Euskalazale baten ikuspegitik?" izenburuko hitzaldi-sorta entzuteko aukera izango da.

Ihardunaldietara joan nahi dutenek astelehena arte, hilak 11, matrikula egiteko aukera izango dute, San Frantzisko Xabier ikastolan eta dohan.

◆ Liburuaren aurkezpena

Gaur arratsaldeko 7etatik aurrera, Monterron Kultur Etxean Leopoldo M. Paneroren azken liburuaren aurkezpena egingo da.

Paneroren azken liburuak "Cartapacios de Lucerna" izenburua dauka eta egileaz gain, aurkezpenean Gasteizko beste bi poeta azalduko dira.

IRAGARKI HAU 5.800 ETXETAN SARTU DA.

**ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO**

ARRASATE PRESS AUKERATUZ GERO.

◆ **Biolonzelo kontzertua**

Datorren larunbatean biolonzelo kontzertu bat egongo da San Juan Bautista Parrokian. Arrasate Musikal eskolak antolatzen duen kontzertu honetan Euskadi Felipe Temes orkestaren biolonzelo bakarlaria izango da emailea. Arratsaldeko 8.30etan emango zaio hasiera kontzertuari eta Juan Arzamendik zuzentzen duen Arrasate Musikaleko orkestrak lagunduko dio. Honako hiru obra hauek entzuteko aukera izango dugu: Rossini-ren "Barbero de Sevilla", Haydn-en "Sinfonia en sol mayor numero 100" eta Camille Saint Saens-ren biolonzelarako kontzertua.

◆ **Marrazki eta grabatuaren erakusketa Monterronen**

Pasa den astelehenik eta datorren 17rarte, marrazki eta grabatu erakusketa izango da Monterronen. Benito Zumaldek eginiko lanaren bidez, tradizioz betetako Arrasateko txokoak erakusten zaizkigu.

◆ **Ibai-Arte anagramen erakusketa Abaroan**

Ibai-Arte elkarteren anagrama lehiaketara aurkeztu diren anagrama guztiakin erakusketa bat burutu da. Aste honetan hasi da eta datorren 17rarte egongo da zabalik Abaroan. Lehiaketara aurkeztu ziren guztien lanak ikusi eta konparatzeko aukera, beraz.

Benito Zumalde

Betiko irudiak plumiletan ilustratuz

Benito Zumaldek plumila eta pintzela erabiliz, histori eta tradizioz betetako mundua erakusten digu. Maiatzaren 4tik aurrera Monterronen aurkeztuko duen erakusketan, Arrasaten hain eguneroko diren aintzinako txokoak ikusteko aukera izango dugu.

— Noiz eta zergatik hasi zinen plumilekin lanean?

— Zaletasuna familiatik datorkit. Aita eta anaia eskultoreak dira eta beti mugitu izan naiz giro horretan. Horrek eragin handia izan du niretzat. Diseinu grafiko lanetan ari naiz Fagorren eta gauza antzekoa dirudien arren, estilo eta teknika oso desberdinak erabiltzen dira bakoitzean. Plumilak egiteko inoiz ez dut akademiaren ikasi, ikastaro batzuk egin ditut baina beti autodidakta izan naiz, neure kabuz ikasi dut dakidan guztia. Denetik egin dut baina plumilak batez ere, alde batetik jendeak harrera ona ematen dielako eta bestetik eta batez ere, nik lortu nahi dudana plumiletan identifikatzen delako.

— Eta zer da lortu nahi duzuna?

— Historia eta tradizioz



betetako tokiak, harri zaharrak, lehengo etxeak adieraztea eta era berean eguneroko txokoak grafikoki moldatzea. Pertsona nagusiek euren mundua, lehengo mundua ikusten dute plumiletan baina bestalde, gazteen gustokoa ere izaten dira.

— Zenbat obra aurkezten duzu erakusketa bakoitzean?

— 25-30 gutxigorabehera. Erakusketa egin baino lehen, herri horretako

argazki zaharrak lortzen ditut: etxeak edo pertsonak, eta hoietatik interesatzen zaidana plumiletan adierazten dut. Argazki batzuetatik gauza batzuk kentzen edo aldatzen ditut: pertsonak, kotxeak, eraikuntza berriak.... Baina ez dira aintzinako txokoak bakarrik izaten, arrantzale eta baserritar aurpegiak ere sartzen ditut erakusketa bakoitzean.

— Zaletasuna lanbide bihurtzekotan?

— Beno, lanetik irtetzen naizenean, astebukaeretan eta denbora librean plumilak egiten ditut. Orain arte 1976. urtetik, noizean behin egin ditut erakusketa hauek baina aurrerantzean seriozki gai honetan sartzea erabaki dut eta hilean bat egiteko konpromezua daukat. Orain arteko harrera badut, ez dago gaizki.

— Zenbat erakusketa egin duzu orain arte?

— Orain arte hamasei egin ditut. Lehenak indibidualak izan ziren baina beste batzuk kolektiboak. Arrasaten ere egon nintzen beste aldi batean, Okendo eta Abaroako aretoetan konkretuki; beste guztiak ere inguruan egin ditut: Gatzagan, Oñatin...

▼
"Argazki zaharretatik hartzen ditut nire gaiak"

Onduline

TXOMIN HERIZ

URALITA

eraikuntzarako materialak

Billegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

Aste gazte

"Denbora, umeen
malizia duen zaharrada"
Georges Schéhádé

Auzolandegiak

- Euskal Elkarte Autonomikoan antolatutako Auzolandegietarako izenemate-epa: maiatzaren 11tik aurrera, plazak agortu arte.
- Estatu espānolean antolatutako auzolandegiren batetan parte hartu nahi izanez gero, pasa zaitez lehen bait lehen Gazteentzako Informazio Bulegotik. Lan-modalitate ugari duzu aukeran: ekologikoa, arkeologia, berrekitzea...

Dirulaguntzak

- Hizkuntz ikasketak atzerrian sakontzeko dirulaguntzak. 18 - 25 urte bitarteko gazte eta hezkuntza ertainetako ikasleei zuzenduak. Dirulaguntza: 70.000 -



80.000 PTAkoa. Eskatzeko epea: maiatzak 14.

- Minusbaliatuentzako laguntza indibidualak. Modalitateak: laguntza espezializatua, teknikoa eta aparteko laguntzak (garraioa, mugikortasuna, protesiak,...). Epea: ekainak 15.

Bekak

- 92-93 ikasturtean iker-tzaileak trebatzeko beka. Estatu espānolean nahiz atzerrian. Eskatzaileak: lizentziatuak. Iraupena: 12 hilabeta. Dirulaguntza: hileko 95.000 - 150.000 PTA. Epea: maiatzak 17.

Lana

- Bizkaiko Diputazioak 3 basozain-lanpostu betetzeko deialdia egin du. Baldintzak: eskola-graduatuak, LH 1 edo baliokidea eta B-1 gidatzeko baimena. Epea: maiatzak 17.

Udako ikastaroak

- Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako udako ikastaroetarako matrikula-epa maiatzaren 13an zabaltzen da. Ikastaro - eskaintza zabala dago: teknologia, publizitatea, sanitatea...

Lehiaketak

- Lekeitioko IV. Eusebio Erkiaga Ipuin - Sariaketa. Euskaraz. 2. adin maila: 15-18 urte, 19tik gora. Lanen gehieneko hedadura: 8 orrialde. Sariak: maila bakoitzeko 3 sari, 25.000 - 50.000 PTA bitartekoak.
- "Café Iruña" kartel-lehiaketa, Tolosako Nazioarteko 23. Abesbatzen Lehiaketa iragartzeko. Sari bakarra: 150.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: ekainak 5.
- "Harrapa ezazu 90etako izpiritua" Argazki - Le-

hiaketa. Lanek egoera inprobisatu, alai eta dibertigarriak isladatu behar dituzte. Sariak: 1.000.000 PTA edo 3 hila-betetako entrenamendu profesionala "Grupo 16" barruan. Epea: hilero aurkez daitezke lanak, ekainaren 15era arte.

Arteleku

- Ikuskari, teknologia eta erakusketa unibertsalak. Hitzaldi-zikloa. Maiatzak 11-13. Sarrera librea.
- Bideoastea, Bideogudua. Bideo-Sormenaren gaurkotasunari buruzko astea. Maiatzak 18-22. Matrikula: 5.000 PTA.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE

ETXEBIZITZAK

- **Bi oheko logela alokatzen da.**
Tfnoa: 79 07 73.
- **Langile batzuk etxebizitza bila gabiltza** Arrasate edo inguruetan. Tfnoa: 77 04 58.
- **Etxebizitza behar dut** alokairuan.
Tfnoa: 79 51 21.
- **Ekainetik aurrera, ekaina barne, logela bat dugu** alokagai ikasle etxebizitza baten. Interesatuek dei egin asteburuetan 94 - 630 85 40. Oso merkea.
- **Bi neskek etxea behar dute** alokairuan Arrasate edo inguruetan. Dei egin 79 31 00, 127 luzapenera. Gotzone edo Maite.
- **Etxebizitza salgai.** Sukalde-jangela jantzia, 3 logela bere armairuekin, egongela, komuna eta 2 terraza. Argitsua, eta bista ederrekoa. Prezio onean. Tfnoa: 79 93 42.
- **Etxebizitza alokatu nahi dugu** Arrasaten. Merke eta ona. Tfnoa: 79 21 09 Aitor.

LANA

- **Esperientziadun emakume euskalduna ospitalean gaisoak zaintzeko gertu.** Gauetz nahiz egunez. Tfnoa: 79 34 51.
- **Emakume euskalduna behar da** bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin 8etatik aurrera 77 00 50 tfnora.
- **Sukaldeko laguntzaile moduan lan egiteko gertu** nago asteburuetan. Tfnoa: 79 24 58.
- **Eskoriatzan klase partikularrak emango nituzke** (matematika eta fisika). Talde txikietan (4koak gehienez). Erdaraz. Tfnoa: 79 34 26.
- **FP2 mailako kimika irakatsiko didan** norbait behar dut. Dei egin 79 50 53 tfnora.
- **Arretxabaletan andra euskalduna gertu** umeak

edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 79 07 75.

- **Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko** euskaraz dakien emakumea behar da. Dei egin 8.30etatik aurrera 79 25 12 tfnora.
- **Neska lizentziatu berriak klase partikularrak emango** lituzke. Euskara eta ingelesarekin. Tfnoa: 79 04 07.
- **Marrazketako klase partikularrak behar dira** F1 mailakoa (erdaraz). Tfnoa: 79 24 33. Ander.
- **Marrazketa diedrikoko klase partikularrak hartuko** nituzke. Tfnoa: 79 79 04.
- **Marrazketa linealeko klaseak emateko** norbait behar dut. Tfnoa: 79 72 47.
- **Emakume euskalduna behar da** bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Dei egin 8.30etatik aurrera 79 68 87 tfnora.
- **Emakume euskalduna umeak zaindu,** etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73

SALEROSKETAK

- **Renault 4 zuri eder bat salgai.** Egoera onean dago eta gainera merke. Dei egin 94 - 475 33 86 tfnora. Ikusi, asteburutan ikus dezakezu. Aprobetxatu!
- **R-7 egoera onean salgai.** Tfnoa: 79 31 20.
- **Honda NS 125 F egoera onean salgai.** Tfnoa: 79 97 48.
- **Bost lagunentzako kanping-denda salgai.** Tuboak aluminiozkoak ditu. Tfnoa: 78 04 89. Arriaran.
- **HIFI kateko Sony TA-333 anplifikadorea salgai.** Mikrofono-nahasle inorporatua dakar. Oso egoera onean dago. Tfnoa: 945- 22 95 71. Oskar.

- **Judoan edota karatean afizionatua bazara eta jantzia Kapemi (3) markakoa behar** baduzu, dei bizkor 79 66 38 tfnora, gaueko 8.15tik 8.30etara maiatzaren 30a aurretik.
- **Sanglas motorra egoera onean salgai,** Yamaha 400 motorrarekin. Prezioa 100.000 PTA. Tfnoa: 77 04 48.
- **Egurrezko Ferreki markako 24.000 koloriako** berogailua salgai. Tfnoa: 78 10 41.
- **Bigela bikoitzeko kanping-denda sagai** egoera onean. Abanze handiz, pasilo eta guzti. Prezio onean. Dei egin 8etatik 10etara 79 56 06 tfnora.
- **Allure modeloko Alpen Kreuzer karro-denda** salgai. Gutxitan erabiltakoa. Tfnoa: 79 80 85.
- **Trikitixa soinuua erosi nahi dut.** Merke bada, hobeto. Tfnoa: 79 12 00. Agurne.

DENETARIK

- **Astelehen goizetan zazpiak laurden gutxiago** aldera Donostiara kotxez joaten den norbaitekin egongo ginateke. Tfnoa: 79 13 83.
- **Urrezko txapa aurkitu nuen** kalean martxoaren 18an. Izena eta eguna jartzen ditu. Galdu duenak dei dezala 79 20 47 tfnora.
- **Idoiari eta Joxe Juani.** Zorionak, zuek bai balixo dozuela. Kuadrilakuek.
- **Ikasle batek bidai-poltsa galdtu du.** Topatu baduzu utz ezazu mesedez Musakolako gasolindegian, guztiz beharrezkoa dut bertan zegoen materiala eta.
- **Umeen betaurreko graduatuak galdtu dira** Otalora eta Ferrerias kaleen artean. Topatu badituzu dei egin 79 86 35 tfnora.
- **Motxila gris bat galdtu da.** Aurkitu duenak dei egin dezala 79 07 18 tfnora.



ARRASATEN HILDAKOAK



Petra Etxebarria Larrañaga,
apirilaren 27an. 77 urte.
Benita Segovia Fernandez,
apirilaren 29an. 74 urte.
Leonidas Herrero Garcia,
apirilaren 29an. 87 urte.
Juan Ramon Vilchez Jimenez,
apirilaren 29an. 66 urte.
Maria Zillaurren Azkargorta,
maiatzaren 1ean. 79 urte.
Pablo Antonio Gonzalez Sanabria,
maiatzaren 1ean. 43 urte.
Pedro Duro Revuelta,
maiatzaren 1ean. 64 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Meltxor Murillo Gure leku tabernakoa



- Tarotean sinisten duzu? Ez, ez dut frogatu ere egin.
- Buruko mina kentzeko, zer? Aspirina bat, fede handia dut horietan.
- Etxea berritzeko diseinatzailerik? Ez, gehienetan nik erabakitzen dut zer egin.
- Maitasunaren lehen legea? Norbere burua maitatzea.
- Telefono agendarik erabiltzen duzu? Euki badaukat, baina ez dut erabiltzen.
- Karrera motza ala bost urtekoa? Niretzat zenbat eta motzagoa hobe.
- Ohitura zaharren jarraitzailea? Batzutan bai, baina berritzea ez dago gaizki.
- Nola ikusten duzu gaurko gazteria? Lehen baino askoz liberalizatuago.
- Kotxean pazientziarik bai? Ez, beti presaka ibiltzen naiz.
- Amets bat? Velazquez ezagutzea.
- Musika tresna bat? Pianoa.
- Zertaz egingo zenuke ikastaro bat? Ez dakit, baina praktikoa izan beharko luke.
- Fruitu bat? Platanoa.
- Ospea ala ohorea? Ospea ez, beharbada ohorea hobe.
- Ume batentzat oparia? Eskalestrix-a.
- Ekologisten aldekoa? Bai, oso osoan.
- Abesti bat? Rolling-en "Dead flowers", "Lore hilak".
- Donostia ala Gazteiz? Donostia, itsasoa duelako.
- Gripearentzako erremedio bat? Eztiarekin esnea eta ohean izerditzea.
- Bertsoa ala prosa? Biak, segun zertarako.
- Likorra kopan ala basoan? Okasioaren eta likorraren arabera.
- Kotel bat? GinFizz-a.

Bertsotan

Herri Urrats

1
Herri Urratsen eguna berriz dator euskal zaleentzat ta itxurazko eguraldia eskatuko dut denontzat egun ederra eta alai nahiz eta izan guretzat beti bezala kontrol ugari jartzen badituzte behintzat euskaldunon jai honetan ere muga dugu oztopotzat.

2
Beste bertso hau hasiz batera joan gaitezen harira euskaldun denok benetazkoak baldin bagina zikira ta izan ere zenbaitek hauxe egiten dute, begira:
Herri Urratsa joan ondoren erdera dute mintzaira euren buruei ta euskarari gezurretan ari dira.

OIER SARASUA



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE

LETE Toldoak

Kataide industrialdea, 14. pabiloia

- Arrasate: 79 23 83
- Bergara: 76 12 24
- Iurreta: (94) 681 76 19



Aralargo San Migel, 1935

A

rrasatearrek beti izan dute mendizale trebeen fama, eta ez da Besaidetarren kontua bakarrik tontorrez tontor ibiltzeko

zaletasuna. 1935ean ere Arrasateko mendizale talde batek egin zuen irteera Aralargo San Migelera eta gerorako oroigarri gisa geratzeko erretratu hau atera.

Argazkia atera zuena **Juan Pedro Azkoaga** izan zen eta tripododun makina batekin hartu zituen bere lagunak. Ikustekoa da, gainera mendi tontorrera eraman zuten hamarretako berezia, jaten ari diren meloia. Ezkerretik eskumara lurrean jarrita **Justo Uribetxeberria**, **German Sagasta** eta **Genaro Ibarra**. Zutik berriz **Valeriano Martinez**, **Juan Pedro Azkoaga**, **Joseba San Pedro**, **ezezaguna**, **Iñaki Arrieta**, **Marcelo Barrutia**, **ezezaguna** eta **Anastasio Zubizarreta**.

Fotografia honek badu anekdota polit bat: Arrasatearrak dauden leku berean, banku edo eserleku berezi bat zegoen, **Primo de Riveraren** diktadura garaian **Alfonso XIII. errege** izandakoak Aralarko San Migeleko Monastegira egin zuen bisita baterako egindako jarlekua. Mendigoizale hauek jarri ziren lekua, beraz, ez zen Aralerreko txarren-txarrena eta bistarik gutxienekoa izango. Ez horixe!

**ARRASATE
PRESS**



77 05 65

ZALEKI


Urdaitegia
Oilaskotegia

Bañez Dokorea, 12
ARRASATE Tfnoa: 79 48 34

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE Tfnoa: 79 15 65

Gurutzegrama




Horizontalak

1. (Ald.) Bizkaiko udala
5. (Ald.) 501 zenbaki erromatarretan
7. Radioa
8. +10+11+ Filantropo arrasatearra
10. Ikus 8
11. Ikus 8
12. Porrotketa
15. Eho
16. Inbutu
17. Manifestatu

Bertikalak

1. Bildotsa
2. Kasik
3. Greziako herrialdea
4. Emankor
5. Komunikazio medio batez
6. Zehatz
9. Guztiona
10. Pilota handia
13. (Ald.) Orain, hark hari eman
14. Izen arabiarra



JUAN BAUTISTA AGORRIA

BIDEO-EMANALDIA

Printseza ezkongai

Tokia: Monterron kultur etxea


Eguna: maiatzak 9, larunbata

Ordua: arratsaldeko 4.30etan

Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterroñen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea





Mondra Sport

Asteartean 9.20etan

Astebukaera honetan Zaldibarko Finala jokatu da eta Mondra Sport saioaren barne txapelketaren erreportai berezia izango duzue. Los Heredia eta Argi-Ibili ekipoek txapelketa irabazteko ahaleginak egingo dituzte. Horretaz gain ez ahaztu astero bezala beste kirolen laburpenak izango dituzuela.

Telebegi

Amerika, Amerika... ametsen fabrika!

Amerika, progresoaren gailurra. Demokrazia eta askatasuna aldarrikatzen duzu. Herri guztiek imitatzen zaituzte, Amerika: amerikarra izatea... zein ondo! Zein ondo?

Hori bai, arazo sozialei erraz ematen diezu soluzioa; heriotz zigorrak baliatzen zara, eroso, dudarik gabe.

Amerika, Amerika, mundua jan nahi duzu, sudurra leku guztietan sartzen duzu (petrolioia egonez gero, hobeto). Maskara hori kentzeko ordua da, edo oraindik adolezentzian, Amerika?

Razismoaren ama zara. Beltza izanez gero hobe duzu kirolaria edo rap-dantzaria izatea.

Baina hasi zaitetz bideo kamara duten guztiak kontrolatzen, bestela, seaskak buelta emango dizu. Demokrazia, askatasuna... hoiek dira zure polizia gizonen erakusten dizkiezun hitzak? Ez dira oso ikasle onak.

Nork eta bideo kamara batek, eskutatzen zenuen errealitate bat kaleratu du. Zenbat eta zenbat ama egongo dira zure banderan beren mukuak garbitzen. Zure gorputza paradisutat daukazu, baina ez duzu analisirik egin eta gaisotasunak ebaditu nahiean, bapatean bateak atakatu zaitu.

Denok izan gara Los Angeles-eko krudelkeriaren testigo telebisiboak. Bideo kamara baten oportunitateak usteltzen ahoan eta hanburgesa usaina darion gizarate baten irudiak eskeini dizkigu. Amerika, pasteleko kandelari putz egin diezu piztuta egon aurretik. Horrela, ez da desioa beteko.

MAIDER EGUES

Erreportaiak

Galdakao-Mondra

Asteartea
8.20etan

Txatxaran

Nesken Saskibalo taldea aztergai

Asteazkena
9.15etan

Ostiral Musikala

Pianoaren inguruan elkarrizketak

Ostirala
9.30etan

Programazioa

10

IGANDEA

9.15. **Mondragol.** Galdakao-Mondra partiduaren laburpena. Aurkezlea: J.L. Ezkurra.

11

ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.** Albistegia.
9.20etan, **Mondra Sport.** Gerardo eta Mikelen eskutik, astean izan diren kirolak komentatuko dira. Zaldibarko finalaren bideoa ere eskainiko zaizue.
9.50. **Asteko zinea:** Wanda izeneko arraina.

12

ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.** Azken albisteen laburpena.
8.20. **Erreportaiak.** Yoga elkarte, Gurutze Gorria eta Bizikletak udaberrirako dira gaiak aztertuko dira.
9.50. **Asteko zinea:** Wanda izeneko arraina.

13

ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.** Jon Anduezen eskutik informazio zehatza.
9.15. **Txatxaran.** Nesken saski-baloi ekipoaren kontuak.
9.50. **Asteko zinea:** Wanda izeneko arraina.

14

OSTEGUNA

8,8.30 eta 9etan, **Berriak.**
9.20. **ATBKetan.** Joan zen astean irabazi zuen taldea beste baten kontra.
9.50. **Asteko zinea:** Wanda izeneko arraina.

15

OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.** Hurbileko azken orduko albistek.
9.30. **Ostiral musikala.** Marta Izagirrek pianoaren inguruan egindako elkarrizketak izango ditugu.
9.50. **Asteko zinea:** Wanda izeneko arraina.




Gipuzkoa:
bihotz-bihotzean

Gipuzkoa: alg
muy nuestro



Gipuzkoarekin buruz eta bihotzez bat eginik ari gara lanean. Horregatik, finantz zerbitzurik aurreratuenak eskaintzeaz gain, bertako nortasunaren alde ere gogotik ari gara **kutxa**n. Kirolaren, kulturaren, artearen, musikaren, ohiturarik errotuenen alde. Gure jende guztiaren alde. Gipuzkoa bihotz-bihotzean daramagulako.

Gipuzkoa: Bihotz-bihotzean.



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa
caja gipuzkoa
san sebastián